

FAKTURAZIORAKO JARRAIBIDEAK 2021-2022 IKASTURTEA

Aurrekontuan dagoen diruaren arabera, hautatzen diren proiektuek **1.500 euroko** laguntza hartzen ahalko dute, gehienez ere, garapen gastuak ordaintzeko.

Fakturak honela aurkeztu beharko dira:

- Ikastetxearen izenean izan behar dute, ez Hezkuntza Departamentuaren izenean, ikastetxeak fakturen ordainketa aurreratu behar baitu, ondoren Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei ordain diezaien.
- Fakturak guztiak **email berean** bidali behar dira. **Fakturak eskaneatu eta pdf bakarrean bidaliko dira**. Honetaz gain, faktura guztien eta dagozkien gastuen zerrenda erantsiko da kalkulu-orri batean.
- **2022ko maiatzaren 10a baino lehenago** helbide honetara bidali behar dira: sformacion.prestakuntza@navarra.es; **emailaren gaian** ikastetxearen izena eta kontzeptua adierazi beharko da (adib. XXX BHI-Berrikuntza proiektua).
- Fakturek 2021eko irailaren 1etik aurrerako data izan beharko dute, eta 2022ko maiatzaren 10a baino lehenagokoa.
- Erositako materialek edo baliabideek lotura zuzena izan beharko dute Sarearen Urteko Proiektuaren ikastetxeko inplementazioarekin eta garapenarekin. Proiektuaren memorian justifikatuko da zergatik erosi diren materialak eta baliabideak eta nola erabili diren, hori eskatzen duen atalean.
- Gogorarazi nahi dizuegu material informatikoa erosteko Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuak oniritzi teknikoa eman beharko duela Hezkuntzako Sistemen, Sareen eta Euskarrien Atalaren bidez .

Fakturen inguruan argibiderik behar izanez gero, 848426576 / 848426232 telefonoetara dei dezakezue.